



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2015eko irailaren 29a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:35 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:10

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Gotzon Igoa Agirrezabal, Amagoia Iribar Manzisidor, Miriam Uranga Egurza, Jose Angel Iparragirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrak 2015eko uztailaren 7an egindako ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Jakinaraztea zein diren Orain talde politikoaren ordezkari titularrak eta ordezekoak Udaleko batzorde informatzaileetan eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA).



- 3.- 364/2015 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez 8/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea onartzen da, kreditua txertatzeko modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 7/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 9/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Espainiako Talidomidaren Biktimen Elkarteak (AVITE) aurkeztutako mozioa.
- 7.- Onartzea, egoki bada, AMNESTY INTERNATIONAL erakundeak aurkeztutako mozioa, Siriako errefuxiatuei buruzkoa.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2015EKO UZTAILAREN 7AN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Orain taldeko bozeramaile Miriam Urangak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak ez duela jaso 2015eko uztailaren 7ko ezohiko udalbatzarraren aktaren zirriborria.

EHBildu taldeko bozeramaile Emeterio Iribarrek hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak ere ez duela jaso 2015eko uztailaren 7ko ezohiko udalbatzarraren aktaren zirriborria.

Alkateak hartzen du hitza eta, EAJ talde politikoaren bozeramaile gisa, adierazten du bere talde politikoak bai, jaso duela aktaren zirriborria.

Azkenik, PSE-EE-PSOeko Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak ere jaso duela aktaren zirriborria.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, ezin denez ziurtatu Udaleko talde politiko guztiek akta hori jaso dutenik, alkatearen proposamenez eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



MAHAI GAINEAN UZTEA udalbatzarrak 2015eko uztailaren 7an egindako ezohiko bilkurako aktaren zirriborroaren onarpena, eta gaia hurrengo udalbatzarrerako uztea.

2.- JAKINARAZTEA ZEIN DIREN ORAIN TALDE POLITIKOAREN ORDEZKARI TITULARRAK ETA ORDEZKOAK UDALEKO BATZORDE INFORMATZAILEETAN ETA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAN (UEMA).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Batzorde informatzaileak eta UEMArako ordezkariak honela osatuta geratzen dira:

Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailea.

Ordezkaritza tituluak: Jose Angel Zaldua Iparragirre (EAJ), Amaia Dorronsoro Portularrume (EH Bildu), Miriam Uranga Egurza (Orain), Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE).

Ordezkaritza ordezkariak: Angel del Hoyo Bravo (EAJ); Emeterio Iribar Sorazu, Gotzon Igoa Agirrezabal eta Amagoia Iribar Manzidor (EH Bildu); Jose Angel Iparragirre Alberdi (Orain).

Kultura, Turismoa eta Euskara batzorde informatzailea.

Ordezkaritza tituluak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Gotzon Igoa Agirrezabal (EH Bildu), Miriam Uranga Egurza (Orain), Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE).

Ordezkaritza ordezkariak: Elixabete Bello Martija (EAJ); Emeterio Iribar Sorazu, Amaia Dorronsoro Portularrume eta Amagoia Iribar Manzidor (EH Bildu); Jose Angel Iparragirre Alberdi (Orain).

Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Gizarte Ongizatea batzorde informatzailea.

Ordezkaritza tituluak: Angel del Hoyo Bravo (EAJ), Gotzon Igoa Agirrezabal (EH Bildu), Miriam Uranga Egurza (Orain), Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE).

Ordezkaritza ordezkariak: Aitziber Campos Morey (EAJ); Emeterio Iribar Sorazu, Amaia Dorronsoro Portularrume eta Amagoia Iribar Manzidor (EH Bildu); Jose Angel Iparragirre Alberdi (Orain).

Obrak, Zerbitzuak eta Hezkuntza batzorde informatzailea.

Ordezkaritza tituluak: Aitziber Campos Morey (EAJ), Amaia Dorronsoro Portularrume (EH Bildu), Jose Angel Iparragirre Alberdi (Orain), Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE).

Ordezkaritza ordezkariak: Angel del Hoyo Bravo (EAJ); Emeterio Iribar Sorazu, Gotzon Igoa Agirrezabal eta Amagoia Iribar Manzidor (EH Bildu); Miriam Uranga Egurza (Orain).



Kirola eta Gazteria batzorde informatzailea.

Ordezkaritza titularrak: Eugenio Cotado Iturain (EAJ), Emeterio Iribar Sorazu (EHBildu), Jose Angel Iparragirre Alberdi (Orain), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE).

Ordezkaritza ordezkariak: Angel del Hoyo Bravo (EAJ); Amaia Dorronsoro Portularrume, Gotzon Igoa Agirrezabal eta Amagoia Iribar Manzidor (EHBildu); Miriam Uranga Egurza (Orain).

Nekazaritza, Arrantza, Industria, Merkataritza eta Ostalaritza batzorde informatzailea.

Ordezkaritza titularrak: Elixabete Bello Martija (EAJ), Amagoia Iribar Manzidor (EHBildu), Jose Angel Iparragirre Alberdi (Orain), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE).

Ordezkaritza ordezkariak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ); Emeterio Iribar Sorazu, Amaia Dorronsoro Portularrume eta Gotzon Igoa Agirrezabal (EHBildu); Miriam Uranga Egurza (Orain).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorren osaketa, 2015eko uztailaren 7ko udalbatzarraren erabakiaren arabera, goian adierazita dagoen bezala.

2.- IZENDATZEA Jose Angel Iparragirre Alberdi (Orain) Orioko Udalaren ordezkari titular Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA).

3.- IZENDATZEA Aitziber Campos Morey (EAJ), Amaia Dorronsoro Portularrume (EHBildu) eta Miriam Uranga Egurza (Orain) Orioko Udalaren ordezkari ordezkari Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA).

3.- 364/2015 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ 8/2015 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEN DA, KREDITUA TXERTATZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Irailaren 7ko 364/2015 alkate-dekretuaren bidez onartutako 8/2015 espedientea kreditua txertatzeko modalitatean egin dago eta 10.374 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.



4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 7/2015 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2015 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 58.746 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2015eko irailaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO]:**

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2015eko aurrekontuari dagokion 7/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 58.746 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 9/2015 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 9/2015 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 50.426 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2015eko irailaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2015eko aurrekontuari dagokion 9/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 50.426 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAUERREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ESPAINIAKO TALIDOMIDAREN BIKTIMEN ELKARTEAK (AVITE) AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

MOCION DE URGENCIA

BREVE HISTORIA DE LA TALIDOMIDA EN ESPAÑA:



La Talidomida se patenta en España en Marzo de 1.954, se trataba de un maravilloso sedante sin efectos secundarios, y además paliaba las náuseas y vómitos en las embarazadas. Empezaron a nacer un número desproporcionado de niños con graves malformaciones en brazos y/o piernas, incluso careciendo de ambas, y en Noviembre de 1.961 los doctores Wídukim Lenz (alemán) y Claus Knapp (español) descubren la relación entre la Talidomida y las malformaciones. Entre Noviembre de 1.961 y Mayo de 1.962 es retirada en el Mundo entero, salvo en España, donde se continua vendiendo aun a sabiendas de sus consecuencias, al menos hasta 1.975. La farmacéutica alemana Grünenthal hizo en España su negocio.

La catástrofe de la Talidomida sirvió para cambiar toda la legislación en materia de control sanitario de medicamentos, alimentos, bebidas y artículos de consumo humano, por lo que podemos decir que gracias a la Talidomida la humanidad puede estar tranquila con las cosas que se lleva a su boca, sobre todo los medicamentos. Escaso ha sido el agradecimiento para con sus víctimas, en España, absolutamente nulo.

BREVE RESUMEN DE LA LUCHA DE AVITE EN ESTOS 11 AÑOS:

Once han sido los años de lucha en busca de una equiparación con las víctimas de Talidomida del resto de Europa, y en este largo camino solo hemos logrado un Real Decreto (1006/2010) que reconocía solo a 24 personas, y las concedía lo que el propio texto denomina "Ayuda Solidaria", o dicho de otro modo más coloquial, una limosna para que nos estemos callados.

Hemos conseguido también que la Talidomida sea incluida en el Real Decreto 1851/2009 entre las causas que justifican una jubilación anticipada con 56 años a las personas que superen el 45% de discapacidad. Paradójicamente, no hay organismo oficial (y gratuito) que reconozca quien es afectado de Talidomida y quien no, por lo que orquestamos un Real Decreto al que las víctimas de Talidomida no tienen posibilidad de acogerse por carecer de reconocimiento "oficial"

Y como colofón demandamos por lo civil al laboratorio alemán Grünenthal ganando el juicio completamente en primera instancia, siendo anulado solo por prescripción por la Audiencia Provincial de Madrid, y en la actualidad estamos a esperas de la resolución del Tribunal Supremo que deliberará la sentencia el próximo 23 de Septiembre de este año (sin ayudas de nadie ni subvenciones de ninguna empresa ni pública ni privada, solo subsistiendo con las cuotas mensuales de sus socios).

BREVE SITUACION ACTUAL Y COMPARATIVO, CON RESPECTO A LAS VICTIMAS DE OTROS PAISES:

La comparativa es muy sencilla, se resume en dos simples puntos:



a) Todas las víctimas de los países europeos han percibido:

1- Una indemnización

2- Pensiones vitalicias para sus víctimas que les garanticen una supervivencia digna, y sobre todo independencia.

3- Unidades médicas especializadas

4- Unidades psicológicas especializadas

5- Gratuidad en medicamentos, prótesis y orto prótesis

b) En España ... NADA DE NADA

SITUACION ACTUAL DE LAS VICTIMAS ESPAÑOLAS EN NUESTRO PAÍS:

Las víctimas vivas de Talidomida que quedan en España, la gran mayoría, sobrevive de las ayudas familiares, la caridad, la iglesia, las instituciones de ayuda social, e incluso ejerciendo la mendicidad por los suelos de las calles de las grandes ciudades. Flaco favor para aquellos a quien la humanidad debe tanto.

Por todo ello, el Alcalde-Presidente de este Ayuntamiento, somete al Pleno, para su aprobación y acuerdo oportuno, los siguientes puntos:

PUNTO 1º) Declarar el Apoyo UNANIME Y SOLIDARIO del Ayuntamiento de Orio para con las Víctimas de la Talidomida en España, y en particular a la Asociación AVITE, por su lucha incansable y sin cuartel, en pro y favor de las víctimas de este fármaco en España, por la deuda histórica que nuestro país tiene con los afectados y sus familiares, desde hace 60 años.

PUNTO 2º) Instar y escribir a la farmacéutica alemana Grünenthal, imperio farmacéutico mundial y afincada en España, responsable de la masacre, solicitándole que sin más dilación indemnice a las afectados españoles, a la siguiente dirección:

DIRECTOR GENERAL DE GRÜNENTHAL ESPAÑA

C/ Dr Zamenhof, 36

28027 MADRID

PUNTO 3º) Que independientemente a la indemnización a la que puedan tener derecho cada uno de los afectados, por el daño que le produjo la farmacéutica en sus cuerpos antes de nacer, además de los daños nuevos, continuos y permanentes que siguen apareciendo en sus cuerpos cada día, después de 60 años, instar también



y escribir desde este Ayuntamiento, al Presidente del Gobierno de España, para que como medida social, el gobierno de la nación, (a través del organismo que corresponda) filtre quien puede ser afectado o no, de Talidomida en España, y conceda pensiones vitalicias a los afectados, hasta que fallezcan, como están percibiendo los afectados del resto de países del mundo, menos en España.

Escribiendo a la siguiente dirección:

Sr. Presidente del Gobierno

PALACIO DE LA MONCLOA

Complejo de la Moncloa, Avda. Puerta de Hierro s/n.

28071 MADRID

PUNTO 4º) Enviar el acta y el acuerdo adoptado por este Ayuntamiento, respecto a esta MOCION DE URGENCIA, tanto a la Asociación AVITE, C/ Comadróna Carmita, 1-2º-H 30820 AL CANTARILLA (Murcia), como al laboratorio alemán Grünenthal afincado en España, como multinacional, y también al Gobierno de España, representada por su Presidente del Gobierno.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldúa (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Bello (EAJ), Emeterio Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu), Amagoia Iribar (EHBildu) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Espainiako Talidomidaren Biktimen Elkarteak (AVITE) aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Miriam Uranga (Orain) eta Jose Angel Iparragirre (Orain) zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen, aurreko hainbat udalbatzarretan emandako arrazoiatatik: uste dutelako udalbatzarrerak ekartzen diren mozioak dagokion batzorde informatzailean eztabaidatu eta adostu behar direla aldez aurretik, taldeek eduki dezaten aukera gaia behar bezala aztertzeke eta ekarpenak egiteko.

19:55 orduak direla, Eugenio Cotado Iturain zinegotzia (EAJ) sartzen da bilkurara.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak aldeko boto kritikoa eman diola mozioari, kontuan hartuta gaztelania hutsean aurkeztu dela. Adierazten du, beren ustez, hori ez dela egokia Orio bezalako herri euskaldun batean

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarraren gai-zerrendan sartu diren bi mozioak sustatzaileek aurkeztu dituzten bezalaxe sartu direla.



7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AMNESTY INTERNATIONAL ERAKUNDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, SIRIAKO ERREFUXIATUEI BURUZKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Europar Batasunak gizatasun-proba ikaragarria du aurrean, azken hamarkadetan izan duen handiena, eta orain arte emandako erantzunak ez du proba hori gainditu, inondik ere. Gehiegikeriak mugan, krisiari aurre egiteko koordinaziorik eza eta lidergo argiaren gabezia dira erantzun horren ezaugarri nagusiak.

Errefuxiatuen krisia da, bai, baina baita Europarena eta hark emandako erantzun negargarriarena ere. Europako agintariek egoerak eskatzen duen mailan jardun behar dute, nazioarteko zuzenbidea betez eta babesa behar dutenak pertsonak babestuz.

2011ko martxoaz geroztik, Siriako gatazka armatuaren ondorioz ehunka mila pertsona hil dira, horietako asko zibilak; beste milaka pertsona atxilotuta edo bahituta daude, eta tortura edo tratu txarrak jasotzen dituzte; beste asko egoera kaskarrean bizi dira setiopeko hirietan. 85.000 pertsona inguru desagertu dira. Bai Siriako gobernuak bai oposizioko talde armatuek giza eskubideen aurkako gehiegikeriak eta gerrako krimenak gauzatu dituzte: presoak hil, torturatu eta jo dituzte.

Gatazka armatu larri horren ondorioz, gaur egun 4 milioi errefuxiatu baino gehiago dago, eta gehien-gehienek ondoko herrialdeetan bilatu dute babesa, hau da, Jordanian, Libanon, Iraken edo Egipton. Beste 7,6 milioi pertsona lekualdatuta daude Siriako mugen barruan. Hortaz, 11 milioi pertsonak baino gehiagok, Siriako biztanleen erdiek inguruk, beren etxea utzi behar izan dute.

Nazioarteak egoera horri begira izandako erantzuna kaskarra izan da. Premiazkoa da biztanleria zibila babesteko eta nazioarteko zuzenbidea urratzen duten krimenei aurre hartzeko ekintzak abian jartzea. Nazioartearen gelditasunak areagotu egiten du giza eskubideen aurkako urraketen erantzuleen zigorgabetasuna. Nazioarteko kide denez, Espainiak ere badu erantzukizunik krisi humanitario horren gainean; hortaz, uste dugu Espainiako gobernuak Siriako gatazkatik ihesi datozen pertsonen giza eskubideetan oinarritutako erantzuna eman behar duela.

Hori guztia dela-eta, Orioko Udalak honako hau eskatu nahi dio Espainiako gobernuari:

1) Eman diezaiela merezi duten erantzuna lau milioitik gora errefuxiatuei, legezko bide seguruak eskainiz. Behar-beharrezkoa da birkokatze-kupoa nabarmen handitzea, bisa humanitario gehiago ematea eta familiak bateratzeko erraztasunak eskaintzea. Lehentasuna eman behar die arriskuan dauden emakume



eta neskatxei, behar medikoak edo ahalmen urritasunak dituzten pertsonei eta babes-behar bereziak dituztenei.

2) Susta dezala nazioarteak martxan jartzea Siriako biztanleria zibila babesteko ekintzak, baita nazioarteko zuzenbidea urratzen duten krimenak prebenitzeko ekintzak ere, gerrako krimenak eta humanitatearen aurkako krimenak barne.

3) Eska diezaiola Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluari Siriako auzia Nazioarteko Zigor Gortera eramateko, eta agin dezala Bashar Al-Asad presidentearen eta haren hurbileko laguntzaileen aktiboak izoztea.

4) Susta dezala Siriako gobernuari egiten zaizkion arma-transferentziak bertan behera uztea. Eragotz dezala giza eskubideen edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak gauzatu dituzten siriar talde armatuei armak eta bestelako laguntza militarra ematea. Berehala ezar dezala Estatu Islamikoaren indarrei munduko edozein herrialdetan arma guztiak enbargatzeko agindua.

5) Babes finantzario nahiz tekniko handiagoa eskain diezaiola Nazio Batuek Siriako krisiari aurre egiteko proposatu duten Eskualdeko Erantzun Planari.

Horrez gainera, Orioko Udalak beregain hartzen du konpromiso hau:

Orioko Udalean Espainiako gobernuaren esku jarriko du Siriako errefuxiatuak birkokatze plaza kopuru nabarmen bat, eta behar adina baliabide bideratuko ditu beharrezko gizarteratze-programak ezartzera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Emeterio Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu), Amagoia Iribar (EHBildu) eta Priede (PSE-EE-PSOE)], guztira **HAMAIA ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA AMNESTY INTERNATIONAL erakundeak aurkeztutako mozioa, Siriako errefuxiatuei buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Miriam Uranga (Orain) eta Jose Angel Iparragirre (Orain) zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen, aurreko hainbat udalbatzarretan emandako arrazoiagatik: uste dutelako udalbatzarrerara ekartzen diren mozioak dagokion batzorde informatzailean eztabaidatu eta adostu behar direla aldez aurretik, taldeek eduki dezaten aukera gaia behar bezala aztertze eta ekarpenak egiteko.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.



ORIOKOU DALA



Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,